

PRINTZESA PUZKERTIA

ARRATE EGAÑA



PRINTZESA PUZKERTIA

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. edizioa: 2017ko otsailean

1998KO "BAPOREA" LEHEN SARIA

Maketazioa:

Erein

Azala eta barruko irudiak:

Manu Ortega

© Arrate Egaña

© EREIN. Donostia 2017

ISBN: 978-84-9109-194-3

L. G.: SS-142/2017

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

edizioak@itxaropena.net

www.itxaropena.net

ARRATE EGAÑA

PRINTZESA PUZKERTIA

Marrazkiak: Manu Ortega

erein **AUSKA** 

idazlea
arrate egaña



© Amara Zapain

Arrate Egaña (Errenteria, 1963) idazlea da eta hogeitiburutik gora idatzi ditu. Hezkuntzan egiten du lan, ISEI-IVEI erakundean, hain zuzen ere, hizkuntzen teknikari. Hizkuntzetako ikasketez gainera, gidoigintza ikasi du eta masterra egin du euskal literaturari eta literatura galego eta kataluniarrari buruz. Adin guztietako irakurleentzat idatzi badu ere, gaztetxoentzat idazten bereziki eroso sentitzen da. Hainbat literatur sari irabazi ditu.

manuortega

marraskilaria



Manu Ortega (Bilbo, 1971). Arte Ederrak ikasi zituen Salamancan eta Kasselen (Alemania). 1997az gero ari da ilustrazio-lanetan, eta haur- eta gazte-liburuentzat egiten du batez ere lana. Zenbait sari jaso ditu; besteak beste, Rei en Jaume 2008, komikiaren mailakoa, Calviàko Udaletxeak emana (Mallorca). Informazio gehiagorako, www.manu-ortega.com

Amaia eta Leireri
Gloria Rey, Ane eta Patxiri

1

Logurapeko erresuman bazen behin printzesa bat, guraso errege-erreginekin jauregi eder batean bizizena.

Logurapeko erresuma aberatsa bezain ederra zen: jauregiak gain, bazuen izen bereko herrixka alai bat, Urmugimuga ibaiaren lur emankorrez inguratua, eta urrutiago Baso Urdina, sartzera inor ausartzen ez zen oihan sakon misteriotsua eta arriskuz beterikoa.

Errege-erreginek lagun asko zituzten: beste lurralde aliatuetako errege-erreginak, konde-kondesak eta duke-dukesak, euren seme-alabekin jauregira bisitan sarritan etortzen zirenak. Baina haur horiek ez zuten gure Printzesarekin jolasean ibili nahi; ez, ordea, harroputza, ergela edo itsusia izateagatik; ez, oso neska jatorra eta argia baitzen. Beste arazo batengatik zebilen beti bakarrik: puzkerti kontrolaezina zelako.

Arazo txiki bat omen zuen sabelean, eta puzkerrak etengabe botatzen zituen. Aski izaten ziren bost minutu, edozeinek bere ondotik ospa egin zezan, lasterka eta estropezuka, baita bere gurasoek eurek ere, izugarri maite zuten arren.

Erregea eta erregina arras kezkatuak zebiltzan: lagunak egin ezinik, nola aurkituko zuen ezkontzeko printze bat?

Mediku anitz zen jauregira etorria, ehunetik gora, munduko herrialde guztietatik, baina alferrik.

–Neskaren amabitxiak dio sendatzeko beharra sentitzen duenean, sendatuko dela –kontsolatzen zen erregina.

–Hum, hum –marmarka ari zen erregea goibel, bizarra hatz puntez orraztuz–: neskaren amabitxia, Kamamila sorgina... Zer ote daki horrek?

–Sorgin ona eta jakintsua da. “Zoriona amaitzen zaionean, orduantxe nahiko du sendatu”, esan zidan azkeneko bisitan, zure gibela sendatzeko belarren bila joan nintzaionean.

–Hum, hum –egin zuen erregeak–. Eta? Ez dut ezer ulertzen.

–Ba hori! Sendatzeko ahalmena duela! –erreginak, pazientzia galtzeko zorian.



“Prrrruuuuffff” entzun zen orduan belusezko erre- zela lodiarene atzetik. Errege-erreginek hatzak eta eraz- tunak sudur zuloetan barrena sartu zituzten.

–Alaba *baitea*, *habaika* aldiz *esand* dinat *ezkutuand* ez *endtzuteko*.

–Ama, non bizi da nire amabitxia?

–Baso *Urdinarend sarrerand* –ihardetsi zion aitak sudur soinu berdinez–, baina ez haiz toki arriskutsu har- tara hurbilduko, *hub, hub*. Zer deritzozu, *ebazte baitea?*

–Ikusiko dugu, laztana. Gure txikitxo *handitzeand agiand...*

Printzesa ez zen umetxoa, baina ez zitzaion axola ho- rrelako xamurkeriaz trata zezaten. Beste lauzpabost puz- ker bota ostean, jauzika desagertu zen gelatik. Erregina balkoira irten zen ilargiaren argipera, eta malko bat le- hortu zuen farfailezko mokanesaz.

Garai hartan zoriontsua zen Printzesa, bai horixe. Gurasoek berak nahi zuena ematen zioten, Arkoxi betiko inude zaharrak maitasunez zaintzen zuen eta erreinuko lorezainaren alaba bizkiak lagun zituen. Gainera, bere gelan orduak ematen zituen liburuak irakurtzen.

Nolanahi ere, ez zen beti horrela izan. Hasieran, ume moko bat baizik ez zenean, irakurtzen ez zekienean, gehiago aspertzen zen. Gazteluan jai bat edo antolatzen zenean, jendea agurtzeko betarik gabe ia, errezelen atzean gordetzeko ohitura hartu zuen, bertatik gonbidatuak dantzan ikusteko. Sarritan, ezkutaleku hura utzi behar izaten zuen, kiratsa nabarmenegia bilakatzen baitzen. Eta gaez, oheratzean, gurasoek ez zioten ipuinik irakurtzen: musu bat eman eta gabon esatearekin batera desagertzen ziren, hain baitzen gogorra puzkerren usaina.

Orduan, hainbeste maite zuen Arkoxi inude zahar-
rrearekin gelditzen zen. Erdi itsu eta erdi gor zegoen
atsoa, apenas hitz egiten zuen, eta, garrantzitsuena, usai-
mena zeharo galdurik zeukan. Horregatik egoten zen
neskaren alboan beti, alkandora zuri bat josiz, nahiz
inork jakin ez norentzat egiten zuen. “Ene bada, ene
bada”, xuxurlatzen zuen lantzean behin, eta ondoren
erdi lo geratzen zen.

Garai hartan, Printzesa Puzkertia maiz gelditzen zen
bakarrik eta goibel, besarkada luze baten gose, nahiz eta
gela gurasoek erositako jostailuz mukuru betea eduki.

Egoera hura aldatu egin zen irakurtzen hastearekin
batera. Ez zen hain erraza izan. Bost andereño eta lau
maisur aritu ziren.

–Eta hemen (*prif, puffff*), zer ipintzen du hemen?

–*Barbitakoa* –zioen andereño batek sudurra estaliz.

–Barbitakoa?

–Ez! –Irakasle gizajoa gelatik irten eta, atea erdi itxia,
hitz errepikatu egin zuen sudurra askatuaz—. Marmi-
takoa!

Azkenean, bere kabuz ikasi zuen irakurtzen, eta ho-
rrek egundoko aldaketa ekarri zion bere bizimoduari,
orduz geroztik ez baitzen berriro inoiz bakarrik sentitu.
Ordu gozoak igarotzen zituen ipuinetako abenturak
irakurtzen. Ondoren, gelako arku zorrotzeko leihoan

eserita, adats argia orrazten zuen, eta lorategiari, urrutiko mendiei eta hodeiei begira gelditzen zen, beste munduak nolakoak izango ote ziren asmatu nahian, egunen batean bidaia luze eta interesgarriak egingo zituela ametsetan.

Printzesaren gela azpikoa zen gaztelu osoa inguratzen zuen lorategiko zatirik politena, lorezainen alaba biki Pixi eta Dixiren ardurapean zegoena, hain zuzen, nahiz eta bi haiek askotan jolas hutsean aritu edo Printzesarekin solasean.

–Zein ipuin irakurri duzu gaur? –galdetu zion Pixik goiz hartan, beti ari baitzen galdezka.

–Sinbad marinelaren ipuina (*prrrrut, fffffut*) –erantzun zion behera begiraturaz–. Eta zuek, zein lore landatu dituzue?

–Anemonak! –ihardetsi zion Dixik–. Horiekin, hogeita hamar lore mota desberdin ditugu gure txokoan. Zure balkoi azpikoa gazteluko ederrena da!

–Jaitsi lore berriak ikustera! –Pixik.

–Ezin dut (*kuifff, prrrrot*), badakizue; nire puzkerrekin denak zimelduko nituzke (*puffffff*). Zergatik uste duzue bestela Puzkertu deitzen didatela? –Une hartan, puzker espantagarri bat bota zuen: *prrrroooooffffeggt*.

Bikiek barre egin zuten.

–Guri ez zaigu axola, benetan!

–Ez dakizu guri Axenario deitzen digutela, kaskagorri izateagatik? –galdetu zion Pixik–. Eta batzuetan, Infernuko Txima!

Hirurek egin zuten barre oraingo honetan.

–Logurapeko herrian (*puf, puf*), zer berri?

–Zaharra berri –erantzun zion Dixik–: gozogilea gozopilak prestatzen ari da, egingo den jai handi batean jateko, eta jostuna oihal ederrak josten dabil. MMmmm!

–Zorioneko zu –esan zion Printzesak–. Nik ezin ditut jan, gasak eragiten dituzte, eta nik horietatik badut nahikoa.

Komentarioak barre eragin zien bikiei.

–Eta printzearena, Dixi! –gogorarazi zion Pixik ahizpari–. Kontatuko al diogu printzearena?

–Ze printze? –galdetu zuen Printzesak.

–A, bai, egia da! Urruti-urrutitik etorria omen da printze arraro bat.

–Zer zekarren, Dixi?

–Sei karroza dotore, hogeitazero zerbitzari, suge-liluratzaile bat, ezpata-jaleak, fakirrak, su-jaurtitzaile bat, hamar kutxatila urrezko, hamabost tapiz hegalaria eta sei elefante!

Bi biritxi ilegorriak dantzan hasi ziren eskutik helduta, eta kantari:

–Ospakizun handiak gazteluan, gozopilak botako patioetan!

Orduan erreginak alabari deitu zion. Printzesa barrura sartu eta lorezain gazteek han jarraitu zuten liliak garbitzen, arrosen arantzak kentzen eta bitxilorezko lepoko luzeak josten.

–Alaba maitea, bisitariak iristear ditinagu, hator berehala!